

ZURRIOLA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAREN CURRICULUM PROIEKTUA



Zurriola Musika eta Dantza Eskola, Zurriola Ikastolaren baitan kokatuta, haurrei eta gazteei musika eta dantza arloko hezkuntza eskaintzen die, 4 urtetik aurrera. Eskola honek hezkuntza artistikoa sustatzen du, ikasleen garapen pertsonal, emozional eta soziala kontuan hartuta. Irakaskuntza guztia euskaraz eskaintzen da, hizkuntza propioaren erabilera eta transmisioa indartuz.

Ikastolako ekitaldi guztietan parte hartzen dugu (jaialdiak, ospakizunak, emanaldien antolaketa...)

HEZKUNTZA IRIZPIDE OROKORRAK

- Ikasleen garapen integrala bultzatzea: motorra, emozionala, soziala eta artistikoa.
- Sormenaren, adierazpen artistikoaren eta talde-lanaren balioak sustatzea.
- Euskal kulturaren transmisioa eta sustapena.
- Inklusibitatea eta pertsona guztien parte-hartzea bermatzea.

HELBURU OROKORRAK

- Musika eta dantzaren bidez ikasleen adierazpen gaitasunak garatzea.
- Entzumen eta koordinazio gaitasunak lantzea.
- Sormena eta irudimena bultzatzea jarduera artistikoen bidez.
- Euskal kultura eta tradizio artistikoekin lotura estua izatea.
- Eskola komunitateko jardueretan modu aktiboan parte hartzea.

IRAKASLEAREN ROLA

Irakaslea bideratzaile da, ikasleen gaitasun artistikoak garatzeko espazio segurua eta inspiratzailea eskainiz. Haurren erritmoa eta gaitasunak errespetatzen ditu, eta autoestimua sustatzen duen pedagogia bat erabiltzen du.

IKASLEAREN ROLA

Ikaslea bere ikaskuntza-prozesuaren protagonista da. Bere sormen gaitasunak, entzumena, gorputz-adierazpena eta lankidetzak garatzen ditu musika eta dantza jardueren bidez. Jarrera aktiboa, interesa eta parte-hartze arduratsua izatea espero da, bai saioetan zein eskolako jarduera artistikoetan. Ikaslea ikertzaile txiki bihurtzen da, esperimentatuz eta sortuz, bere burua adierazteko bide berriak bilatuz. Ikasleen gaitasun artistikoak garatzeko espazio segurua eta inspiratzailea eskainiz.

Haurren erritmoa eta gaitasunak errespetatzen ditu, eta autoestimua sustatzen duen pedagogia bat erabiltzen du.

CURRICULUMAREN ANTOLAKETA

- *Musika*: abestia, entzumena, erritmoa, instrumentuak, konposizioa
- *Dantza*: gorputz-adierazpena, euskal dantza, dantza garaikidea

BALIO HEZITZAILEAK

- *Euskara*: eguneroko hizkuntza eta sormenaren transmisio tresna.
- *Berdintasuna*: generoa eta aukera berdintasuna kontuan hartzen da curriculum osoan.
- *Aniztasunaren trataera*: ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako jarduerak.

KOMUNITATEAREN PARTE-HARTZEA

- Eskolako jarduera nagusietan parte hartzen da (kontzertuak, antzezpenak, ospakizunak...).
- Gurasoek eta familien parte-hartzea bultzatzen da (ikusle gisa, boluntario gisa...).
- Familiaren eta eskolaren arteko harreman estua bilatzen da, komunikazio irekia eta erraza bultzatuz.
- Familiaren kontziliazioa errazteko, saioen ordutegia malgua eskaintzen da ahal den neurrian, eta eskolaz kanpoko jardueren egutegia familiei aldez aurretik helarazten zaie antolaketa erraztu ahal izateko.(kontzertuak, antzezpenak, ospakizunak...).
- Gurasoek eta familien parte-hartzea bultzatzen da (ikusle gisa, boluntario gisa...).

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

- Jolasaren bidezko ikaskuntza.
- Gorputz-adierazpenaren eta sormenaren bidezko metodologia aktiboa.
- Material didaktikoak: bozgorailuak, grabazio tresnak, irudiak, ispiluak...

ONDORIOAK ETA AUTOEBALUAZIOA

Curriculum proiektu hau bizia eta eguneragarria da; urtez urte berrikusten da, eskolako errealitatera egokitze eta ikasleen garapenari erantzun egokia emateko. Irakasleek elkarrekin eta familiarekin lankidetzan estua mantentzen dute.